

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure katalogoa 16tik 35 urte bitarteko jendearentzat zuzenduta dago gehienbat. Izan ere, INEko ikerketa bateko emaitzetan oinarritu gara. Ikerketa honen emaitzek diote arropa online erosten duen Espainiar biztanlegoaren portzentaiaren %47a adin tarte honek kontsumitzen duela. Honen ondorioz, gure arropa online saltzea erabaki dugu.

Bestalde, OCUn kontsumitzaileen ikerketak dio, Espainiar biztanlegoaren %42ak arropa erosi baino lehen etiketako begiratzen duela. Horrela produktuaren materiala zerez osatua dagoen jakiteko. Biztanlego honen %38ak nahiago ditu material naturalak eta ekologikoak. Ondorioz gure enpresaren bezeroak izateko aukera dago.

Gainera, populazioaren %36ak ez du “fast fashion” dendetan kontsumitzen; esaterako Inditex eta H&M. Beraz guk eskaintzen ditugun produktuetan interesa erakutsi dezakete.

Azkenik, herrialdearen % 84k badaki baliabideak aurreztu eta hondakinak murriztu behar direla. Hori dela eta, ezinbestekoa da behar adina arropa baino gehiago ez erostea (edo gutxienez, beraiek “beharrezkoa” kontsideratzen dutena baino gehiago ez erostea). Gure enpresaren helburuetako bat hondakinei bigarren bizitza bat ematea da, eta honen harira, ikerketaren emaitzetan oinarrituta; portzentai hori gure produktuak kontsumitzeko prest egongo direla aurreikusten dugu.

BALIATUTAKO ITURRIAK:

<https://www.ocu.org/consumo-familia/consumo-colaborativo/informe/moda-sostenible>

<https://www.modaes.es/empresa/quien-compra-moda-en-espana-radiografia-del-consumidor-online.html>